

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria (((47. zk))) urtarrila 2021

Itsasondon tokiko energia komunitatea sortzen

Elkarrizketa: Federico Guiu Ansuaga
Ikerketa sozioekonomikoa
Jolas eremua



Azkenean! Horrenbeste aldiz eskatu duguna gertatu da: amaitu da 2020. urtea, eta eman du bakea. Baina garbi geratzen da egutegi berria paretan zintzilika-tzeak ez dituela gauzak bat-batean aldatzen, eta hemen gaude, zaharrak berri.

Alderatuko bagenitu 2019ko eta 2020ko urte-zaharretako desioen, asmoen eta nahien zerrendak, zerikusi gutxi izango lukete ziurrenik. Izan ere, urte berriari gauza bereziak eta zirraragarriak eskatzera ohituta geunden: bidaia bereziren bat, kapritxoren bat, kirol erronkak, edo pisuarekin edo itxurarekin loturikoak.

Aurtengoan, berriz, pentsatzen dut zerrenda gehienen goialdean osasuna eta "normaltasunera" itzultzea egongo direla; garrantzia hartu dute orain arte baliorik eman ez diegun eguneroko hainbat ekintza xumek, eta albo batera utzi ditugu hainbeste fantasia eta gehiegikeria.

Normaltasuna eskuratzeko, garbi dago garrantzitsua dela norberak bere aldetik ahal duen guztia egitea, baina COVID-ak argi erakutsi digu gizarte moduan jokatu beharra daukagula gaitzari irabazteko; denok ez baditugu neurriak hartzen, ez da posible izango hura garaitzea.

Orain denok txertatze kanpainen ditugu esperantzak jarriak, baina, txertatze kanpainak eta gizarateak hartzen dituen neurriak emaitza eman arte, gure artean izango dugu COVID-a, eta batera edo bestera gure bizitza baldintzatzen jarraituko du.

2021. urtea beste egokitzapen urte bat izango den itxura hartuta dator; hala ere, denok ere egunerokotasunari eusteko gogoz garenez, zer hoberik Itsasondo 2.0-k dakartzan kontuak aurkeztea baino.

Udaleko berrietan, batez ere urte amaierako diru kontuak izango ditugu aipagai; bestetik, Aztiker enpresak Itsasondan egindako azterketaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Elkarriketei dagokienez, batetik jaiotzez tolosarra den baina Itsasondan urte asko daramatzan Federico Guiuk bere zaletasunaren berri emango digu: flash jokoak programatu eta sortzea. Horiez gain, hemeroteka, eragileen atalak eta beste hainbat eduki aurkituko dituzue.

Murgildu, eta gozatu! ■

Aurkibidea

- 03-04 **Udaleko berriak**
- 05 **Haurreskola**
- 06 **Eskola**
- 07 **Guraso elkarteak**
- 08-09 **Ikerketa**
- 10-11 **Haur parkea**
- 12-15 **Elkarrizketa: Federico Guiu Arsuaga**
- 16 **Informatika**
- 17 **Elkarrizketa: Feli Veguin**
- 18 **Euskarak 365 egun**
- 19-21 **Hemeroteka**
- 22 **Liburutegi txokoa**
- 23 **Errezeta / Euskararen atala**
- 24 **Oharrak / Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Joana Bixenta Olabe*

Udaletzeko berriak datoz
herritarrekin elkartzeko asmoz,
haurreskolan jatorduen kezka
gurasoak segurtasun eska,
elkarrizketan
Federico eta Feli, ber-bertan
bizikontutan, bene benetan.

Euskaraldia, beti hizpide
aipa genitzake mila adibide;
eukaliptua, modako arbola
itsatsi zaigu, ta ez edonola
gozoen gaien
atun tartaren usaina mahaian
liburu on bat aurkeztu nahian.

Udalean irailetik abendura bitartean jorratu diren gai garrantzitsuenak azalduko ditugu jarraian.



Udaleko berriak

UDAL BATZARRAK

Urriaren 20ko udal bilkura

Hauek landu dira:

- Goiko Kaleko 4. zenbakian errentan emanda dagoen etxebizitzaren kontratua beste bost urtetarako luzatzea.
- Goiekiko Administrazio Kontseiluak egindako proposamena onestea, eta bertako kapitalaren handitze proposamena onartzea.
- 2021. urtean indarrean izango diren Ordenantza Fiskalen aldaketa onartzea. Hauek dira onartutako aldaketak:
 - Zabor bilketa zerbitzuko tasak igotzea, %3.
 - Hilerriko lurperatze kontzesioak eta tasak egokitzea, zerbitzuaren kostuaren arabera.
 - Horiez gain, gainontzeko tasa eta zergetan aldaketarik ez egitea erabaki zen.

Abenduaren 14ko udal bilkurako gaiak honako hauek izan dira:

Nagusia 21ean 2000. urtean esleitutako janari dendaren ustaketarekin ez jarraitzea erabaki denez, deialdi berri bat egitea erabaki da. Eskakerak egiteko epea urtarrilaren 7an amaituko da.

Aurrekontuan gastu gehiago egin ahal izateko, kreditu gehigarriak onartu dira, 2019ko gerakina erabilita. Guztira, 2020ko aurrekontuak, onartutako gehikuntza guztien ondorioz, 1.340.585 €ko zenbatekoa izango du. Inbertsioen atala, guztira, 490.386,25 € izango da, aurrekontu osoaren %36,5.

Mozio hauek onartu dira:

- Mendebaldeko Saharako su-etenaren aurrean, saharar herriaren eta haren legezko ordezkari Fronte Polisarioaren borrokaren zein Saharen herriak duen autodeterminazio eskubidearen aldekoa.
- Itsasondoko udalerriko esparruan honakoak eskatzea: eukaliptoen aldaketa debekatzea eta Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiei beharrezko neurriak hartzea, eukaliptoen aldaketa gehiago eragin ez ditzaten.
 - Udalerrri guztian eukalipto-landaketak egitea debekatzea, ebidentzia zientifikoei men eginez, Plan Orokorra berri arte eta bertan zehaztu arte lurzoruek izan ditzatezken erabilerak.
 - Eusko Jaurlaritzari eskatzea, ahalik eta lasterren, eratu dezala Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoa. Era berean, berehala ireki dezala Eucalyptus espezie desberdinak Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoan sartzeko administrazio-prozedura.
 - Foru Aldundiei baso-politikak alda ditzatela eskatzea, beren lurraldeetan eukalipto gehiago landatu ez daitezken, eta planifika dezaten titulartasun publikoko zein pribatuetako mendietan gaur egun dauden eukalipto-sailen ordezkapen ordenatua.

Udalen finantzaketari buruzko Foru Fondoaren eta zorpeztaren inguruan Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari zuzendu beharreko eskariak.

ALKATE DEKRETUAK

- Udaletxeko kultur gunea eta lokalak erabiltzeko, herriko elkarte, partikular eta eragileen partetik zortzi eskaera egin dira.
- Nagusia 7an hutsik zegoen udalaren etxebizitza errentan emateko tramitazioa burutu bazen ere, etxebizitzak hutsik jarraitzen du. Beraz, deialdi berri bat egin da.
- Lanbidek langabezia dauden pertsonak kontratatzeko egindako deialdiaren ondorioz, jasotako dirulaguntzarekin, gazte bat kontratatu da bost hilabetetarako. Kontratazio honen kostua, Lanbidek emandako 12.500 €ko laguntzarekin finantziatuko da.
- Gizarte larrialdietarako hamabi espediente onartu dira.
- Ezinduentzako aparkamendu espediente bat onartu da.
- Obra txikien baimenak tramitatu dira, guztira, hiru espediente.
- Herri-bideetatik egurrak ateratzeko espediente bat tramitatu da.
- Kamioientzako aparkalekuan, hutsik zegoen plaza bat okupatzeko baimena eman da.
- 2020ko egutegi fiskalaren aldaketa onartu da, eta horren berri eman da 2020ko abenduaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- Hirilurren balioaren gaineko hiru espediente tramitatu dira.
- 2020ko hirugarren hiruilekoko ur errolda onartu da, 12.929,80 €ko zenbatekoarekin.
- 2020ko hirugarren hiruilekoko zabor bilketako errolda onartu da, 16.063,73 €ko zenbatekoarekin.
- Estolderiako, aparkalekuko eta musika eskolako erroldak ere onartu dira, eta kobrantza egin da.
- Hilerrian kontzesioak emateko hiru espediente onartu dira.

DIRULAGUNTZAK:

Azken hiruilekokoan honako dirulaguntzak eskatu eta lortu dira:

- Liburutegiko laguntza, irakurzaletasuna sustatzeko: 1.200 €.
- Liburutegiko laguntza, liburu multzo berriak erosteko: 558 €.
- Urtero bezala, aurten ere Osakidetzak 6.875 €ko ekarpena egin du, Itsasondoko anbulatorioko mantenu gastuetarako. Ekarpenean hiru Itsasondoko anbulatorioko txartela dutenen araberakoa izaten da. Gure kasuan 764 dira, Itsasondoko, Aramako eta Alzagako herritarrek zenbatuta.
- Haurren eta Gazteen ekintzak finantziatzeko: 2.505,58 €.
- Basoak zaintzeko, hobetzeko eta ugaritzeko: 4.581,12 €.
- Itsasondoko baserriak Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren urrez hornitzeko: 299.965,60 €.

Honako dirulaguntzak ere eskatu dira, baina ebazpena ez da jaso oraindik:

- Murumendiko Basoak berreskuratzeko eta haien egoera ekologikoa hobetzeko ekimenak finantziatzeko dirulaguntza.
- Itsasondoko Irisgarritasun plana eguneratzeko dirulaguntza. ■



Jatorduak

Adituek azaldu bezala, elikatzeko unek ez diote gosea asetzeko beharrari soilik erantzuten. Izan ere, jatorduetan jatea komunikazio ekintza bat ere bada, jarduera sozial bat. Beraz hori zaintzea, garrantzitsua dela uste dugu.


Hezitzaileok uste dugu jatorduak heziketako oso une garrantzitsuak direla, hezkuntzako bitarteko gisa erabil baitaitezke bazkaria, askaria... Haur txikien autonomia pixkanaka garatuz, pertsonaren zaintzara bideratutako hezkuntza-jarduerak martxan jartzeko aukera ematen du; baita bizikidetzari, gaitasun sozialei nahiz norbere buruaren ezagutzari dagozkionak lantzeko ere. Gizakiak munduarekin ezartzen duen lehen lotura elikadura-ereduan oinarritzen da, eta erlazionatzeko lehen modu horren baitan eraikitzen ditu haurrak gainontzeko lotura guztiak.

Gure helburua da otorduak momentu goxo, atsegin, seguru eta lasaia izatea, haurrak atseginenez biziko dituztenak. Horretarako, jatorduak kontuan hartuta antolatzen dugu haurreskolako egunerokoa.

Guretzat garrantzitsuena ez da zenbat jaten duten, baizik eta momentu horretan hartzen duten jarrera. Beraz, inoiz ez zaie jatea behartuko haurrei; izan ere, guretzat haurrak gaitasuna du aukeratzeko, eta bere gorputza zein beharrak entzuteko eta asetzeko. Horregatik, ez zaie xantaiarik egiten, eta behar duten denbora eskaintzen zaie. Haurrak une jakin batean jan nahi ez badu, egunean zehar behin baino gehiagotan eskaintzen diogu janaria, eta hezitzailea ondoan izaten du etengabe.

Haurrari, hasieran, banaka, hezitzaile-haur harremanean sakonduz, ematen zaio jaten. Poliki, hainbat faktore kontuan hartuta (bakarrik esertzeko gaitasuna, autonomia...), aulkian esertzera pasatuko da. Behin pauso hori emanda, hasieran, haurrak eta hezitzaileak bakarrik jango dute; eta, ondoren, taldean jatera pasatuko dira.


Haur txikienei eta oraindik bakarrik jateko garapena zein interesa ez dutenei hezitzaileok emango diegu jaten, haur bakoitzaren beharren arabera (biberoia, frutak...).



Aulkian esertzeko gaitasuna dutenek gelan hesiz inguraturik dugun gunean egiten dituzte otorduak. Hezitzaile eta haur bakarrarekin hasten gara. Horrela, haur bakoitzak bere otordu-tarte indibiduala izaten du hezitzailearekin, eta bakoitzari bere denbora eskaintzeko aukera izaten dugu. Horrenbestez, haur bakoitzak ikasten du bere txanda itxaroten eta besteek errespetatzen. Ikasturtea aurrera doan heinean, talde txikiak osatzen joaten gara; bi haurreko taldeekin lehen-dabizi, eta 3-4 haurreko taldeekin, ondoren. Hezitzaile bat egoten da jatordua egiten ari direnekin, eta beste hezitzailea gelan jolasean daudenekin geratzen da.


Haurrak interesa adierazten duten heinean, koilara eskaintzen diegu, beren kabuz jan dezaten. Hasieran, hezitzailea eta haurrak koilara bana dutela jaten dute. Gero, pixkanaka, hezitzailearen koilara desagertuz joaten da, eta haurrak bakarrik jatea lortzen du.

Beraz, gure haurreskolan garrantzia handia ematen diegu zaintza momentuei, eta horietako bat da otordua. Hezitzaileon artean hartzen ditugu erabakiak, haur guztiekin berdin joka dezagun eta horiek errutinak barneratu ditzaten. Horrela, segurtasuna izango dute haurreskolako egunerokotasunean. ■



Zer da STEAM Euskadi?

Batetik, zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika artearekin eta humanitateekin lotzen dituen arloa da. Haren bidez, ikasleen oinarriko gaitasunak, zeharkakoak zein diziplinakoak, garatzen dira. Bestetik, ikasleak gure gizartearen erronkei erantzukizunez aurre egiteko ahalduntzen dituen hezkuntza eredua da.



Honako ezaugarri hauek ditu:

1. Uztartu egiten ditu zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika, artearekin eta humanitateekin.
2. Oinarriko kompetentziak garatzen ditu, bai zeharkakoak bai diziplina-kompetentziak.
3. Ahaldundu egiten ditu ikasleak, gure gizartearen erronkei arduraz aurre egiteko.
4. Honako hauek dira helburuak:
 - Bokazio zientifiko-teknologikoa sustatzea, genero estereotipo guztien gainetik.
 - Ikasleen STEM gaitasunak hobetzea.
 - Ikasleen parte-hartzea bultzatzea, haien inguruko mundua eraldatzeko, modu aktiboan.

Aurtengo ikasturtean, iaz hasitako ibilbideari jarraituz, gure eskolak STEAM proiektua landuko du.

Helburua negutegiko landareak eguneko 24 orduetan argia izanez gero, gertatuko litzakeena behatzea eta aztertzea izango da.

Horretarako, eskola baratzeke negutegia eskolako patioaren eskalan egingo da; eta, energia berriztagarriak erabilita, 24 orduz argindarra lortu beharko dugu.■



Ezohiko ikasturtea martxan

Urkipe eskolak irailean eman zion hasiera ikasturte berriari.

Gogoratu martxoan eskolako atea itxi zirela eta ikasleek etxetik jarraitu zituztela ikasketak.

Aldaketa horrek ahalegin berezia eskatu zien bai irakasleei, bai ikasleei, bai gurasoei.

Oraingo ikasturte berria ere erronkaz beteaz etorri zitzaigun. Ikastetxean birusaren kutsatzetik gerta ez zedin, legeak agindutako hamaika betebeharrak genituen aurretik: sarreretan tenperatura hartu, eskuak maiz garbitu, haurrak burbuila taldeetan banatu...

Nabarmenezkoa da gaurdaino eutsi zaiela aurrez aurreko klaseei. Beraz, bejondeizuela ikasleoi eta irakasleoi!

Irailetik hona, bertan behera geratu dira ekintza ugari: herriko jaiak, gau beltza, gaztaina jatea... Momentuko arauak eta aholkuek hala eskatzen zuten.

Bestaldetik, ordea, borondatez, guraso batzuek kirol elkarretaratzeko antolatutako dituzte, haur eta gaztetxoekin sozializazioa, kirola, euskara eta abar uztartu nahian. Bete beharreko arauak zintzo hartu ziren kontuan. Azkenik, ordea, egitasmo hori ere bertan behera geratu zen, hala behartuta.

Ea pixkanaka-pixkanaka normaltasunerako bidea zabaltzen dugun, egiteko geratu zaizkigun ekintza horiek gauzatu ahal izateko. ■



Herria aztergai

Herritarren eta herriaren egoeraz kezkatuta, azterketa sozioekonomiko bat egin du Itsasondoko Udalak, herritarren beharrak eta gabeziak ezagutzeko asmoarekin



2020. urteko iraila eta urria artean egin da Itsasondoko herritarren egoeraren eta beharren inguruko ikerketa. Aztiker Soziologia Ikerketa egin du proiektua, Itsasondoko Udalaren eskariz.

Herritarrei egindako inkesta baten bidez jaso da informazioa, besteak beste, gai hauen inguruan: herritarren kezka nagusiak, inkestatuen etxebizitza mota eta egoera ekonomikoa, Covid-19agatik martxoan hasitako konfinamendua nola bizi izan duten, pandemiari aurre egiteko udalak hartu dituen neurriak ezagutzen dituzten...


Itsasondoko etxebizitza bakoitzean (257 guztira) inkesta bat egitea izan da helburua. Etxebizitza bakoitzeko pertsona batek erantzun du galdetegia. Inkesta betetzeko hainbat modu jarri dira: Internet bidez, telefono bidez edo Aztikerreko inkestatzailearekin, aurrez aurre. Hiru asteren buruan, 151 etxebizitzatiko inkestak eskuratu dira; hau da, Itsasondoko hamarretik sei etxebizitzatiko iritzia jaso da, galdetegi bidez.

Bildutako erantzunetatik hainbat ondorio eta emaitza nagusi jaso dira. Ikerketan atal berezi bat eskaini zaio aurren bizi izan den garai zailari: konfinamenduari.

Martxoa eta ekaina bitarteko konfinamendu garaia etxean nola bizi izan duten galdetuta, arlo emozionalari dagokionez, inkestatuen hamarretik zortzi baino gehiagok (%82,4) etxean oso ondo edo nahiko ondo moldatu direla adierazi du. Gainerako %17,6k nahiko edo oso gaizki moldatu dira. Bestetik, arlo ekonomikoari erreparatuta, oso ondo edo nahiko ondo moldatu dira %85,3; eta nahiko edo oso gaizki, %14,7.

Hainbat aldagai gurutzatuz gero, nabarmentzekoa da konfinamendu garaia okerren pasatu dutenak bakarrik bizi direnak izan direla, batetik; eta etorkinak, bestetik. Azken horiek zailtasun ekonomikoak dituztelako, bereziki. Bestetik, konfinamendu garaian teknologia aldetik arazorik izan ote duten galdetuta, itsasondoarren hamarretik batek baino gehiagok (%13,2) baiezkota erantzun du. Gehien-goak arrazoi hauek aipatu ditu: ordenagailu falta (batzuetan gailu bat izatea ez baitzen nahikoa telelana eta gaztetxoekin online eskolak jarraitzeko) edo Internetera konexio eskasa edo zuntz optiko falta.


Konfinamenduan zehar izan al duzue teknologiarri lotutako arazorik?





Konfinamendu garaiko egoera ez da izan, baina, inkestako gai bakarra. Etxebizitzari buruzko galdera sorta ere egin zaie herritarrei. Itsasondorren %89k jabetzan du bere etxebizitza, eta %11 alokairuan bizi da. Alokairuan bizi diren gehienak Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dira. Bestetik, Itsasondoko familien ia hamarretik batek (%9,3) erantzun du gaur egungo etxebizitza aldatzeko beharren ikusten direla. Aldaketarako premiaren arazoiez galdetuta, badira prezioarekin edota etxearen kokalekuarekin gustura ez daudenak, baina, zalan-zaririk gabe, etxebizitzaren beraren ezaugarriak dira aldaketa nahi izatearen arazoi nagusia eta, zehazki, igogailu falta eta horrekin lotutako mugikortasun arazoak.

Gaur egungo etxebizitza aldatzeko premia al duzu?




Arreta berezia eman nahi izan zaio Itsasondoko gazteen egoerari eta iritziri ere. Guztira, 18 eta 35 urte bitarteko 27 herritarren erantzunak jaso dira ikerketan. Gaur egungo etxebizitza utzi eta beren kabuz bizitzera joateko asmoa edo nahia dutenak %38,5 dira. Emantzipatu nahi, eta oraingoz ezin izan duten gazteen artean, aipatu da egoera horren arazoi nagusia etxebizitzaren prezioak altuegiak izatea dela (%66,6); eta, ondoren, beraien lan egoera ezegonkorra ez diela uzten emantzipatzen (%20,0). Aipagarria da, era berean, inkestatu guztiak prest egongo liratekeela Itsasondo utzi eta beste udalerriri batera joateko, beraien beharretara egokitutako etxebizitza eskuratzeko.

Inkesta honetan ateratako emaitzekin gaur egun herrian dagoen egoera orokorra ezagutu nahi izan da. Horrez gain, udalari aurrera begira hartu beharreko erabakietan laguntzeko tresnak eskaini nahi izan zaizkio. ■

Ikerketa osoa irakurtzeko:
www.itsasondo.net/node/2329


Arazo teknologikoen arazoia



Aldaketa beharren balizko arazoi hauetatik zein da GARRANTZITSUENA zuen kasuan?





Itsasondoko arazo nagusia zein den



Diru-sarrerak kontuan hartuta, hilabete bukaerara nola iristen zarela esango zenuke?

Nola definituko zenuke zure egoera ekonomikoa?





Jolas eremu berrirako proposamen erakargarria aurkeztu berri dute Itsasondoko haurrek

2020. urtea amaitzear zela, parke berriaren maketa aurkeztu du jolas eremua birdefinitzeko partaidetza prozesuko haur taldeak udal ordezkarien aurrean.

Itsasondoko haur parkea biziberritzeko eta herriko haurrei jolas espazio berri eta egokia eskaintzeko konpromisoari eutsiz, Itsasondoko Udalak parkea birdefinitzeko parte-hartze prozesuari ekin zion azaroan, Urkipe herri eskolako haurren laguntzarekin.

Urkipe herri eskolako 6-12 urte bitarteko bederatzi haurreko talde batek parte hartu du partaidetza prozesuan. Hala ere, herriko gazte eta helduen parte hartzea ere aintzat hartu da proiektua borobiltzeko eta jolas parke berria guztien artean eraikitzeko; horretarako, bestelako jarduerak antolatu dira prozesuan, hala nola senideentzako galdetegia eta eskolako beste haurren artean egindako marrazki eta horma irudi lehiaketa.

Azaro erdialdean, diseinu prozesuarekin hasi aurretik, udaletxera joan ziren prozesuan parte hartu duten haurrek eta haien gurasoak, udalaren asmoa zein zen jakiteko, jolas parkeen eredu eta esperientzia batzuk ezagutzeko, eta parte-hartze prozesuaren oinarriak adosteko. Orduan zehaztu ziren jolas parkearen izaeraren lehen oinarriak: elementu naturalek garrantzia izatea eta adin tarte desberdinetako haurrentzat jolas eremu zabala lortzea.

Diseinu lanak hiru saiotan egin dira eskolako bederatzi haurren laguntzarekin.

Lehen saiorako, ezustean, eskolan landuriko marrazkiak ekarri zituzten haurrek, eskolako gainontzeko umeen eskaera zehatzekin. Lehen saioaren helburu nagusia izan zen jolas eremuari buruzko lehen nahiak eta hausnarketak jasotzea: eremuaren gabeziak eta beharretatik hasi, eta lehenengo proposamen berriak egiteraino. Lehen ideia zaparradan hainbat ideia errepikatu ziren haurren artean:

- Eremu handia da, eta ez da aprobetxatzen.
- Gauzak hondatuta daude.
- Adin tarte mugatu baterako jolasak egin daitezke: txikientzako dago prestatua.
- Iturriak joko handia ematen du udan.
- Ezkutaleku gehiago behar dira.
- Eskalatzeko eremu bat nahi dute.

Saioaren amaieran guraso eta anai-arrebentzako galdetegia prestatu zuten haurrek, haiek ere jolas eremuari buruz zuten iritzia jasotzeko asmoz.



Bigarren saioan, jolas eremua aztertu zuten haurrek, eta eremu berrirako proposatutako elementu eta jolasak kokatzen saiatu ziren. Jolas eremua arkitektoen modura aztertu zuten (azalera, neurriak ezagutzeko asmoz), jolas eremu berrirako eremua ondo definiturik izatea garrantzizkoa baita elementu berriak kokatzeko. Saioaren amaieran, jolas eremu berrirako elementuez eta jolasez aritu ziren, lehen saioan atzemandako beharrak, gabeziak eta proposamenak aintzat hartuta; lanean aritu ziren elementu berriak jolas eremuan kokatzeko, guztien artean adostuz elementu bakoitza non jarri.

Hirugarren saioan, aurreko saioan landuriko jolas eremuaren plano oinarri hartuta, maketa ahalik eta fidelena egin zuten haurrek. Maketan aurreikusitako jolaserako elementuak kokatu zituzten hainbat material erabiliz (material birziklatuak, batez ere).

Besteak beste, hauek izan dira maketan aho batez proposatu dituzten elementuak: parkera sartzeko txirrista, eskalatzeko pareta, enbor jolasak, egurrezko eskailerak, tirolina, kolunpioak, egur azaleko lurra duen eremua, hare-azko eremua, ezkutalekuak eta pasaleku sekretuak, atzerpea, solairu askoko dorrea, zirkuituak, zintzilikatzeko eremuak, urarekin jolasteko eremua eta eserita egoteko eremua.

Maketa amaiturik eta ondo atondu ondoren, udalari aurkezteko txanda iritsi zen abenduaren 9an. Urkipe eskolako bederatzai haurrek jolas eremu berriaren maketa aurkeztu zuten udal arkitektoaren, zinegotzi arduradunaren eta Kimubat enpresako ordezkariaren aurrean —enpresa horrek eraikiko du jolas eremua—. Saio berean, Urkipe eskolaren laguntzarekin senideei bidalitako galdetegiaren erantzunak igorri zitzaizkien, aintzat har zitaten.

Udalaren aldetik iritzi oso baikorra jaso zen aurkezpenean, eta proposamena ondo aztertzeko tartea utzi zen.

Abenduaren 17an, erantzuna jasotzeko saioa antolatua zen. Udal arkitektoaren, zinegotziaren eta Kimubateko ordezkariaren esanetan, lan paregabea egin dute haurrek, eta proposamen baliotsu eta irudimentsuak jaso dituzte maketan. Proposamenak aintzat hartuko dira, baina egokitu egin behar dira, udalak bete beharreko arauak eta legeak kontuan hartuz, haurrei gogorazai zietenez.

Laugarren saioan marrazki eta horma irudien lehiaketako irabazleen sari banaketa egin zen.

Marrakiz lehiaketan bi irabazle egin dira:

- LH 1-2: AIERT SOLIS
- LH 3-4: ANTHONY PADILLA

Horma-irudi lehiaketan (LH 5-6 mailetan), talde irabazle bat eta aipamena jaso duen beste talde bat:

- Irabazleak: HAIZEA ITURRIOZ, NAHIA MARTINEZ ETA ENARE-GRAXI BARANDIARAN
- Aipamena: OIHAN ZUDAIRE, PABLO CARMONA ETA URKO GARCIA

Marrakiz guztiak ludotekan jarri dira zintzilik, maketaren ondoan.

Jolas eremuaren proposamena udalean lantzeko unea da orain. Udalak, Kimubat enpresako lantaldearen laguntzarekin, proposamenak teknikoki duen bideragarritasuna ondo aztertu ondoren, jolas eremuaren azken diseinua prestatuko du. Urtarrilean aurkeztuko du proposamena Udalak.

HAURREK IRUDIKATUTAKO PARKE EDERRA IZANGO DUGU LASTER! ■

Federico Guiu Arsuaga

**Federico Guiu Arsuaga tolosarra
1961eko uztailaren 25ean jaio zen.
Duela 28 bat urtetik bizi da
Itsasondon, eta bi alabaren aita da.**

Zenbat senide zarete?

Ni eta beste bi. Ni baino helduagoak dira, ni naiz etxeko gazteena. Haiek Tolosan bizi dira, ni naiz Tolosatik joandako bakarra. Garai txarra zen jaioterrian zerbait erosteko, eta jende askok egin zuen bertatik alde egiteko hautua: Alegiara, Anoetara, eta abar. Guk Itsasondora etortzea erabaki genuen. Garai hartan ezinezkoa edo oso zaila zen Tolosan gelditzea; orain badirudi aukera gehiago daudela.

Zer oroitzapen dituzu Tolosaz?

Inauteriak. Zinez inauterizalea naiz. Hori odolean eramaten da.

Eta eskola. Auzoko eskolara joan nintzen lehenik. Garai hartan, eskola hartan, Espainiako bandera ateratzen zen... Gero, Gorosabelera eraman ninduten, beste eskola batera. Hura herriaren erdigunean kokatuta zegoen. Eta, gero, beste batera joan nintzen. Azken horrek egun Samaniego izena du.

Gu Larramendi auzoan bizi ginen; auzo txinatarra ere esaten zitzaion. Langile auzoa zen. Esan bezala, lehenik, auzo horretako eskolara joan nintzen. Bertan inguruko baserrietako haurrak eta Larramendi auzoak elkartzen ginen. Kanpotik etorritako asko bizi ziren auzoan, gaztelaniaz egiten zutenak, baina base-rritik zetozenek euskaraz ere egiten zuten, noski. Hala ere, debekatua-edo zegoen euskaraz egitea...

EGB eta Lanbide Heziketa egin nituen, baina ez nuen aukerarik izan azken hori amaitzeko, nire borondatez kanpoko arrazoiak direla medio. Bost ikasturte zituen Lanbide Heziketak, eta nik lau egin nituen. Soldaduska egitera joan behar izan nuen.

Zertan espezializatu zinen Lanbide Heziketako lau urte horietan?

Elektrizitatea ikasi nuen.

Zenbat denbora eman zenuen soldaduska egiten?

Urte bat inguru. Leku ona tokatu zitzaidan, eta ohi baino lehenago

Ez dut alboratzen euskara ikastea.**Zinez inauterizalea naiz.****Madrilera lanera joatea eskaini zidaten, ezetz esan nuen.**

itzultzeko aukera izan nuen. Jaenen izan nintzen, eta, ingurukoak ikusita, ez nintzen gaizki egon. Elektrizista ibili nintzen. Instalazio handiak zeuden, eta hori guztia kontrolatu behar genuen. Denbora mugatua izaten genuen lan asko egiteko, eta presioa izan ohi genuen lanean.

Jaenera ez omen zituzten euskaldun asko bidaltzen, eta ez gintuzten begi onez ikusten... Baina, tira, leku ona izan zen. Izan ere, teknikari asko zegoen han, eta bat gehiago izan nintzen.

Eta gero, zer?

Soldaduskatik itzuli nintzenean, aitak esan zidan lanpostuak aterako zituela Adifek (Lehen Renfe), kakolari aritzeko, trenak lotzen, eta hortik jo nuen. Egia esan, 80ko hamarkadako krisiaren testuinguru hartan, ez zegoen aukera handirik. Paper fabrika ugari itxi zituzten, eta egoera ez zen erraza.

Adifen jarraitzen dut lanean. Gerora postuz igotzeko aukera izan nuen.

Zenbat urterekin hasi zinen lanean?

1985ean hasi nintzen, 24 urterekin. Eskaintza publikoko oposizioak egin nituen. Deustura joan nintzen azterketa egitera, eta sartzea lortu nuen. Miranda de Ebron ikastaro bat egin behar izan nuen, araudia zer-nolakoa den ikasi behar baita lanean hasiteko. Orduetik gaur arte leku berean lan egin dut. Kakolari hasi banintzen ere, gerora postuz igotzeko aukera izan nuen.

Begirataile edo txartel-zulataile izateko azterketara ere aurkeztu nin-

tzen, eta gainditu nuen. Hala ere, Madrilera joateko esan zidaten, eta hori ez zitzaidan interesatzen. Uko egin nion postuari.

Gero faktorearen aukera agertu zen. Lanpostu horretan geltokia zuzentzen edota kontrolatzen da. Desagertzeko zorian dagoen lanpostua dela uste dut; izan ere, eginkizun gehienak zentralizatuta daude, eta ia dena Miranda de Ebrotik kontrolatzen da. Desagertu agian ez, baina geroz eta langile gutxiago behar dira geltokian. Garaiak aldatu dira.

1985ean Donostian hasi nintzen espezialista gisa, kakolari. Hala ere, hasieran peoi gisa aritu nintzen gehiago kakolari gisa baino. Ondoren Irunera bidali ninduten, eta, han bai, kakolari gisa jardun nuen. Gero etorri nintzen Beasainera. Orduetik Beasainen lan egiten dut. Tarteka beste geltoki batzuetara ere joan behar izaten dut, baina Beasainen dut ohiko lan-tokia.

Zenbat gelditzen zaizu erretiro-rako?

Lau edo bost urte gutxienez. 59 urte ditut.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Irakurtzea gustuko dut. Normalean, nobelak irakurtzen ditut: historikoak, polizia nobelak... denetik.

Pintatzea ere oso gustuko dut, baina utzia daukat.

Eta ez dut alboratzen euskara ikastea. Haurrekin hitz egiteko-eta mol-datzen naiz, edota elkarrizketa oso arruntak izateko, baina hau bezalako elkarrizketa bat izateko, adibidez, ez. Nire amak euskaraz bazekien. Aita Zaragozatik etorri zen txikia zela, eta ez zuen euskara ikasi. Nire anai-arrebek euskaraz hitz egiten ikasi bazuten ere, nik ez. Tokatu zitzaidan garaia-egatik edo. Gu bizi ginen auzoa nahiko erdalduna zen, eta horrek eragina izan zuela uste dut. Hala ere, belarria egina daukat, eta ulertu, guztia ulertzen dut. Hitz egiterakoan daukat arazo gehiago, aditzekin eta. Baina esan daiteke zertxobait mol-datzen naizela.

Beste zaletasunen bat?

Bai, jokoak egiten ditut haurrentzat, Flashen.

Zertan datza flashen jokoak egi- tea?

Flasheko programazioaz zerbait jakin behar da: programa ezagutu behar da. Gero marrazkiak eta grafikoak egiten jakin behar da, eta hori guztia joko bilakatu.

Zure jokoetan agertzen diren pertsonaiak zuk marrazten al di- tuzu?

Irudiak hartzen ditut, eta, normalean, kalkatu egiten ditut. Gero mugimen-
dua ematen diet pertsonaia edo ob-
jektu horiei.

Zein asmorekin hasi zinen joko horiek sortzen?

Egia esan, ez dakit, baina zaletasun
moduan edo. 1995 inguruan hasi
nintzen, eta esango nuke ehun joko
baino gehiago sortu ditudala. Gus-
tuko nuelako hasi nintzen, eta horre-
gatik jarraitzen dut. Alabak ere
txikiak ziren, eta haientzat egokiak
izan zitezkeen. Lagunekin ere jolas-
ten omen zuten nik sortutako jokoe-
tan.

Jokoak orrialde batean ditut zintzili-
katuta, biltegia deitzen diodan
orrialde batean. Bertatik deskargatu
daitezke. Duela gutxi arte online jo-
lastu zitezkeen, baina egun, ez. Ez In-
ternet Explorer, ez Mozilla Firefox, ez
Google Chrome ez daude prest Flash
Player beren baitan mantentzeko.
Gauzak horrela, nik sortutako jokoe-
tan jolastu ahal izateko, deskargatu
egin behar dira. Seguruak dira.

Zer-nolako jokoak dira?

Denetik dago. Hainbat gai landu
ditut: moda, kirola, pintatzeko jo-
koak... Orain arku-tiroaren inguruko
joko bat bukatzen ari naiz, esate ba-
terako.

Ez dira joko luzeak orokorrean, labu-
rrak baizik. Bat, esaterako, partxis
modukoa da, eta hori luzea izan dai-
teke, baina beste batzuk, minutu ba-
tekoak edo.

Nire joko gehienak hiru hizkuntzatan
daude: euskaraz, gaztelaniaz eta in-
gelesez.



Urpekari ikastaroa



2020an Asturiasen

Jokoak programatzeko nire maila
nahiko oinarritzkoa da, baina ondo
moldatzen naiz. Askotan ahalegin
bat baino gehiago egin behar dut
lortu nahi dudana eskuratzeko.

Eskaera bereziren bat egin al di- zute?

Gauzatxo batzuk egin izan ditut. Esa-
terako, lanerako pare bat joko, gure
lanarekin zerikusia dutenak. Horie-
tako batekin sari bat eta guzti irabazi
nuen.

Zer eskatzen diozu 2021. urteari?

Bada... gauzak normalizatu daite-
zela.



1986ko Tolosako inauterietan

Zein izan da zure bizitzako une- rik zoriontsuena?

Nire alabean jaiotzak.

Eta zorigaitzekoena?

Egunero lanera joateko esnatzen nai-
zen momentua [barrez]. Txantxa da. ■

Hemen web orrialdea:
[https://txepetxabiltegia.
webcindario.com/](https://txepetxabiltegia.webcindario.com/)



Tokiko energia komunitatea (TEK) Itsasondon

Udaletxeko teiltuan eguzkiaren energia argindar bihurtzen duen instalazio fotovoltaiko bat jarri da. Udalak 7.000 € inbertitu ditu, eta Foru Aldundiak eta Energiaren Euskal Erakundeak beste 9.000 €.



Udaberrian jarri zen martxan, eta udalaren erai-kinean erabiltzen den elektrizitatearen laurdena baino gehiago ematen ari da. Eraikuntza hutsik dagoenean, asteburuetan, batik bat, ekoizten duen elektrizitatea sarera bideratzen da, eta kobratu egiten da. Ondo bidean, egindako inbertsioa lau urtean amortizatzea espero da; eta 20 urtean, bidea, behintzat, egingo duela ziurtatzen digute sistema jarri dutenek. Aukera borobila.

Diru kontuak txukun eramatea beharrezkoa da, baina ekimen honen arrazoi nagusiak izan dira klima larrialdiari aurre egiteko karbono dioxido isurketak eta mepokotasun energetikoa gutxitzea. Horregatik, eguzki-instalazioa jartzeaz gain, udal eraikinetan energia kontsumoa gutxiengora jaisteko neurriak ere hartu dira.

Baina ezer gutxi egin dezake udalak klima larrialdiaren aurkako borrokan, herritarren laguntzarik gabe; batez ere, itxurazko zerbait egin nahi badugu. Eta orain energia arautzen duten lege aldaketek bide hori jorratzen hasteko zirikitu egokia ireki digute: Tokiko Energia Komunitate (TEK) izenarekin ezagutzen diren elkarteak sortzea, energia berriztagarriak ekoizti eta den artean banatzeko eratzen direnak.

Hala ere, araudiak kokxa bat ezartzen die TEK hauei: sortzen den energia elkarbanatu ahal izateko, kontsumitzaileek elektrizitatea ekoizten den lekutik gehienez ere 500 m-ko bueltan egon behar dute. Udalak duen teiltatu handienean, frontoian, instalazio fotovoltaikoa jartzeko proiektua martxan dago, eta goiko irudian ikus daitekeenez, 500 m-ko muga hori ez litzake arazo handia itsasondoarentzat; izan ere, herrigunear dauden etxe gehienak parte hartzeko aukera izango lukete. Instalazio honen ondoren beste batzuk jartzen direnean herri osoa harrapatzeko aukera izango da; eta, hasieratik, herritar guztiei emango zaie parte hartzeko aukera.

TEK hauetan, norbanakoez gain, administrazioek eta enpresa txiki/ertainek ere parte har dezakete. Horien ezaugarrietako bat da ez dutela helburu ekonomikorik. Bazkideei argindarra merkatzeaz gain, xedea da etekinak herriari eskaintzea, ingurumen, ekonomia eta gizarte onuretako.

Horretaz gain, beste lau baldintza hauek bete behar ditu TEK batek:

1. Parte-hartzea irekia eta borondatezkoa izatea.
2. Autonomoak izatea, bazkideen benetako kontrolpean egotea.
3. Energia berriztagarrien proiektuen inguruan eratu egotea.
4. Proiektuak beraien jabetzakoak eta beraiek garrantutakoak direla erakustea.

Aurreko guztia kontutan hartuta eta abagunea aprobetxatu nahian, Itsasondon Tokiko Energia Komunitatea sortzen hastea erabaki du udalak. Horrela, herrian kontsumitzen den argindarraren zati handiena Itsasondon bertan sortzea izango da helburua, instalazio fotovoltaikoak eraikiz, horien etekina maximizatuz, sorkuntza eta kontsumo puntu guztiak dinamikoki kudeatuz eta herritarren argindar-fakturak merketuz.

Bide horretan, frontoiko sistema martxan jartzeaz gain, udalerrian energia fotovoltaikoa ekoizteko aukerak azalduko dizkigun txostena ere aurki izango dugu eskuetan. Honekin batera, herritarren parte-hartzea ahalbidetuko duen komunitate hori sortzeko zer behar den, zer baldintza dauden, bakoitzaren parte-hartzea nolakoa izango den eta beste hainbat galdera erantzuteko, partaidetza prozesu bat martxan dago. Aurki deituko dizuegu zuei ere.

Hau da gure leloa: planeta zaindu eta zure elektrizitate-fakturan aurreztu! ■

'Online' Irratiak

Badakigu Interneten gune asko daudela musika entzuteko, baina askotan soinu berri edo ezezagunen bila ibiltzen gara errutinatik ihes egiteko

Seguruenera, bulegoan, lanean edota autoan gaudela askotan jartzen dugu musika, eta ziur gogaituta gaudela denbora guztian betiko albisteak entzuteaz; adibidez, aurtan, denbora guztian COVID-19ari buruzkoekin.

Gainera, askotan denbora guztian abesti berberak entzuteak aspertu egiten gaitu. Badirudi irrati programa horrek CD bera jartzen duela egunero.



Hori ikusita, eta gauza berrien bila ari bazara, Interneten aukera asko daude. Spotify aukera ona da, baina gure kasa online irrati interesgarriak ere aurkitu ditzakegu. Adibide batzuk jarriko ditugu, ahalik eta genero gehien topatzen saiatuko gara.

1FM TRANCE / AMSTERDAN TRANCE (HERBEHEREAK)

Holandako irratiak, bereziki trance musikaren espezializatua. Holandan musika elektronikoa ohikoa da eguneroko bizitzan, eta musika industriaren indar handia du genero horrek. Gainera, DJ eta produktore asko holandarrak dira, hala nola DJ Tiesto, Armin Van Buuren, Martin Garrix, Afrojack... Trance musika gustuko duen edozeinentzat gomendagarria da irrati hau.

RTL2 (FRANTZIA)

Irrati honek aukera ematen digu 70eko, 80ko eta 90eko hamarkadako rock abesti ospetsuenak entzuteko. Balada politenak eta rock dantzagarrienak entzun daitezke irrati honetan. Hauek, adibidez: Kiss, Aerosmith, Cher, Bon Jovi...

ROCK ANTENNE (ALEMANIA)

Heavy metalean espezializatua duen irrati alemaniarra. Gurera iritsi ez diren talde asko entzun daitezke bertan. Aukera ona da ezagutzen ez genituen taldeak ezagutzeko eta gure errepertorioa handitzeko. Gainera, azpigerenera asko entzuteko aukera ematen digu: opera rock, baladak, industria metal...

OLD SCHOOL HIP-HOP (NEW YORK)

Hip-hopa eta rapa gustuko duen jenderentzat gomendagarria da irrati hau. %100 Estatu Batuetako hip-hopa emititzen du, bere base, DJ eta scratch guztiekin. Noizbehinka, rap saioak entzuteko aukera ere ematen du.

DM RADIO (ERRUSIA)

Techno musika jartzen duten irratiak famatuak Alemanian egon ohi dira, baina, kasu honetan, techno genero guztietatik onenetako bat Errusian ikus daiteke. DM irratiak techno musika genero guztiak jartzen ditu, komertzialenetik hasi eta techno ilunera. Beraz, technoa gustuko baduzu, hau zure irrati da.

DARKSYNTHRADIO (AUSTRIA)

Kultura gotikoa interesatzen baldin bazaizu edota ezagutzen ez dituzun beste genero batzuen bila ari bazara, interesgarria izan daiteke irrati hau. Estilo gotiko guztiak jartzen ditu: 80ko hamarkadakoetatik hasi eta gaur egunekoetara arte. Kultura gotikoan entzun daitezkeen genero guztiak aurki ditzakegu: Agrotech, Darkwave, EBM, Futurepop, Synthwave, Goth-Industrial...

Horiek dira adibide batzuk. Interneten makina bat irrati aurki ditzakegu, bai Euskal Herrikoak eta bai beste herrialde batzuetakoak, baita ezagutzen ez ditugun genero askotako irratiak ere. Esan dezakegu irrati tematikoak direla, publiko konkretu bati bideratutako irratiak. Baina horrek ez du esan nahi gure gustukoak izango ez dienik.

Hemendik animatzen zaituztet Interneten zuen gustuko musika generoa bilatzera, baina ezagutzen ez dituzuen irratiak entzun. Seguruena, ezagutzen ez dituzuen taldeak eta beste genero batzuk deskubrituko dituzue. ■

Feli Veguin

Feli Veguin bizkaitarra 2019tik bizi da Itsasondon; haren bikotekideak etxea hemen erosi zuen, eta aukera izan zuenean hona etorri zen bizitzera. Itsasoa utzi, eta mendi aldera etorri da, baina gustura dago hemen bizitzeaz, nahiz eta familiaren eta nabigatzearen falta sumatzen duen.



Noiz etorri zinen Itsasondora bizitzera?

2019ko uztailean.

Non bizi zinen lehen?

Algortan, Getxon.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora bizitzera etortzea?

Urte batzuk ziren nire bikotekideak Itsasondon etxea erosi zuela, eta aukera izan nuenean etorri nintzen.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunaz?

Lehen aldiz, bisitan etorri nintzen; oraindik Algortan bizi nintzen, eta toki oso lasaia iruditu zitzaidan. Bi urte pasa ondoren, hona bizitzera etortzea erabaki nuen. Algortako bizi kalitatearekin alderatuz gero, adibidez, paregabea da.

Zer lanbide duzu?

Freskagarri enpresa garrantzitsu batentzat lan egiten dut, eta ia Euskal Herri osoan ibili behar izaten dut produktua supermerkatuetan kontrolatzeko eta merchandising materiala banatzeko.

Zer sumatzen duzu faltan Algortatik?

Nabigatzea eta familia.

Zer ez zaizu gustatzen Itsasondotik?

Ez zait gustatzen, adibidez, ni bizi naizen kalea, Beko kale, utzia eta zikina dagoela, Kale Nagusiarekin alderatuz gero.

Eta zer duzu gustuko?

Lasaitasuna gustatzen zait gehien, eta nire txakurrarekin paseo asko emateko aukera daukadala.

Zer zaletasun duzu?

Algortan bizi nintzenean, bela elkarte batean nongoen (gurutzaldi kategorian), eta estropada askotan parte hartzen nuen. Orain, itsasoa mendiarekin aldatu dut.

Janari bat?

Lekak.

Edari bat?

Ura edo infusioak. Festarako, pattarra.

Itsasondoko edo Goierriko txoko bat?

Urkia.

Amets bat?

Lurmutur handi bat txakur askorekin izatea.

Jaso duzun oparirik bereziena?

18 urte bete nituenean amak antolatu zidan sorpresa festa.

Zeri diozu beldur?

Lanik gabe geratzeari.

Zer sortzen dizu irribarrea?

Familia ikusteak.

Itsasondon biziko ez bazina?

Algortan, Sant Pere de Ribesen edo Frantziako herri txikiaren batean. ■



Euskarak 365 egun

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan.

11+15=26

11 eta 15, 26. Bi urteko epean, masiboki eta Euskal Herri osoan 26 egunez egin dugu ariketa. Eta gehiago beharko ditugu, bai, euskararen maratonia luzea baita, entrenamendu asko eta jarraituak behar dituen maratonia. Praktika orok behar du ikasketa, partida orok behar du beroketa.

Euskararen Eguna da abenduaren 3a; euskararen eguna da abenduaren 4a. Eta euskarak 365 egun izan dituzan ari gara, milaka lagun, pertsona bezain kolektiboa den eta kolektiboa bezain pertsonala den ariketa egiten; euskaraz bizitzea eguneroko ariketa baita.

Ekinez... ekinez aldatzen dira ohiturak. Hizkuntzari eutsiz... eutsiz apurtzen ditugu inertiak. Euskara jasoz zabaltzen dizkiogu ateak hizkuntzari.

19

Zenbakizko abizena duen gaitz gaizto batek kolpatu gaitu guztiok. Ikasi dugu harremanak ez direla soilik aurrez aurre gertatzen, makinekin ere aspaldi komunikatzen ginela, etxean eta etxetik ere hizkuntza barreiatzen dugula. Baiezatu dugu etorkizuneko ahobizi eta belarriprest askok kalea, aisialdia, inguru bat nahi eta behar duela euskaraz bizi ahal izateko. Ikusi dugu ilusioz osatutako hainbat arigunek ezin izan duela normaltasunez aritu. Gogoan izan ditugu ateak ezin zabaldu egon diren tabernak, dendak, dantza edo musika taldeak, eta beste hainbeste. Zorretan gaude haiekin, Euskaraldi bat zor diegu.

Baina, era berean, zenbakizko abizena duen birusaren garaian ere, bestelakoak ikusi ditugu: euskararekiko lotura estua duen herri bat dagoela, zailtasunen aurrean indarrak biderkatzeko gaitasuna duen herri-gogoa dugula, krisialdiari aurre euskaratik egingo dion milaka entitate dagoela, herriz herri erakunde, gizarte eragile, enpresa eta euskaltzaleak eskutik helduta gauza handiak egin daitezkeela.

24/7

"Zenbat gara?", galdetu digu Euskaraldiaren abestiak aurtin sarri. Eta, egoerarik zailenetan ere, milaka lagun hizkuntza ohiturei astindu bat emateko prest agertu da berriro ere. Txapa paparrean, irribarreak ikusten zaila den urtean. Milaka lagun kalean, lanean edo etxean gure inertziei aurre egin eta inguruan aldaketak eragiten. Euskararentzat, guretzat, mundu berriak zabaltzen, espazioak aritzeko gune bihurtzen.

"Zenbat izango gara?", galde dezagun. Biharko, etziko, datorren aste euskararen herrian eutsiko al diogu ariketari? Euskaraz bizitzea eguneroko ariketa baita. Euskararentzako irabazitako arigunak zaintzea hizkuntza praktiketan inbertitzea baita. Herrietan saretzeko sortutako lantaldeak indartzea mugimendu euskaltzalea sendotzeko oinarria baita.

Gaurtik aurrera ere, gehiago, gehiagorekin, gehiagotan jarraituko dugu inertiak apurtzen; egunean 24 orduz, astean 7 egunez. Euskarak 365 egun ditu eta.

Ahobizi eta belarriprest! Erronka ederra dugu, elkar zainduz eta euskaraz, geroa dugu irabazteko! ■

Ezin izan ditugu egin aurreikusitako hainbat ekintza edo ohiko zenbait kultur ekimen, COVID-19agatik, baina aurrera egin dugu neurriak hartuz gauzatu ahal izan denarekin. Herri bizitza mantendu nahi izan dugu, eta kultur eragileei hauspoa eman. Hona hemen hilabete hauetan egindakoaren kronika:

Kirol astea

Orientazio proba: Oihana Unanue natura aditua- ren eskutik, familian eta lagun taldean aritzeko proba jolas bikaina antolatu genuen. Urki bidera abiatu, eta bidean natura elementuak topatu, eta horien inguruko azalpenak jaso genituen. Oso balorazio ona egin zuten joandako 21 lagunek.

Emakumea eta kirola mahai ingurua: Plazera izan zen gonbidatutako kirolariek gurekin partekatu zutena entzuteko aukera izatea. Lau kirolari hauek etorri ziren: Olatz Mitxelena (herri kirolak), Eresti Oiarbide (soka-tira), Elena Calvillo (mendi lasterketa) eta Intza Lizarazu (saskibaloia). Gustu handiz entzun genituen haien esperientziak, bizipenak, oztopoak eta aholkuak.

Eskalada jasangarria: Gipuzkoako mendi federazioaren eskutik, aukera izan genuen Gipuzkoako hainbat udalerritan martxan jarri duten eskalada jasangarria proiektua ezagutzeko. Lehenik, proiektuaren nondik norakoak azaldu zizkiguten, eta egitasmoaren dokumentala ikusi genuen gero; azkenik, galderen eta ekarpenen tarteak izan genuen. Sei lagun elkartu ziren aurkezpenean.

Kirol egokituko saioa: Sentsibilizazio saioa egin genuen herriko nerabeekin. Kirol egokituko eskolako adituek eman zuten saioa. Hainbat ariketa egin zituzten, eta guztiekin ikasi zuten guztiok praktikatu dezakegula kirolen bat, egokitzea dela irtenbidea, guztiok parte hartzeko. Saioan gustura azaldu ziren haurrak eta dinamizatzaileak. Bosgarren eta seigarren mailakoek parte hartu zuten. Asmoa da urtero egitea saioa adin horretako gazteekin. Horrela, guztiak pasako dira sentsibilizazio saiotik. ■



Hankaz gora, ipuin kontaketa antzertua

Istorio ugari kontatu zizkigun fabrikan lan egin nahi ez zuen langileak. Bere ametsetan barneratuz mundu magikoan sartu gintuen. Kulturguneko edukiera bete genuen, eta txikiak zein ez hain txikiak berdintasunean oinarritutako istorioak entzunez gozatu genuen. ■



Olentzero eta Mari Domingi orientazio jolasa

Aurreko saioko arrakasta ikusirik berriz eutsi nahi izan diogu natur jolasei. Oraingoan 35 lagun inguruk parte hartu zuen eta berriz ere saioarekin oso gustura gelditu ziren partaideak. Olentzero eta Mari Domingiren elementuak oinarri hartuta eta neguko soltiziaren aitzakian goiz ederra pasa genuen. ■



Kimikarin, esperimentu tailerra

Gabonetako oporrak aprobetxatuz, 6-16 urte bitarteko haurrentzat tailerra antolatu genuen. Kimika eta esperimentuak oso erakargarriak egiten zaizkie, eta esperimentatzen asko ikasten denez, aukera paregabea izan genuen. Hogei haurrek parte hartu zuten hiru taldetan banaturik. Lau esperimentu egin zituzten, eta asko gozatu zuten. ■



Eneko Dorronsoro eta Fredi Pelaez, Agirre diskoaren aurkezpena

Dorronsoro ataundarrak diskoa atera du, eta aurkezpena egin zuen gurean. Pelaezen laguntzarekin saio bikaina egin zuten eskolako aterpean. 19 lagun joan ziren saiora, eta asko gozatu zuten emaldiko musikarekin eta abestien inguruko azalpenekin. Plazera izan zen giro goxoan musikaz zuzenean gozatzeko aukera izatea. ■



Euskañolitis monologoa, Oihan Vegarekin

Hamar urte pasa dira Vegak euskararen inguruko monologo arrakastatsua egin zuela. Orain berriz heldu izan nahi dio gaiari, eta, umorea eta euskara uztartuz, barre-algaran jarri gintuen emanaldira joandakoak. 22 pertsona izan ginen eskola arkupeko emaldian. Azaldu zigun euskara birziklatu behar dugula, bideo labur batzuen bidez eta umore ukituaz lagundurik. Saio umoretsua izan genuen. ■



Maite Franko, ipuin kontalaria

Aspaldian zen Itsasondon izana, eta urte amaieran izan dugu gurean berriz. Ipuin sorta ederra ekarri zuen haurren imajinazioa dantzan jartzeko. Haur talde polita bildu zen saioan, eta parte-hartze eredugarria izan zuten. Amaieran, elkarrekin abesti antzeztuak ere egin genituen. ■



Liburutegi txokoa

Atal honetan liburutegiko azken berriak azaltzeaz gain, liburu baten gomendioa egingo dizuegu. Bada-kizue aldizkariaren helburua herritarron parte-hartzea sustatzea ere badela, beraz, aholkatzeko moduko li-bururik bururatzan bazaizue, bidali proposamena: **itsasondo2.0@itsasondo.eus** helbidera.

Azken liburu berrikuntza hauek izan ditugu liburu-tegian (Nobedadeak apalean aurkituko dituzue).

liburu gomendioa



EL MAR DE CORCIRA

Idazlea: Lorenzo Silva
Argitalpen data: 2020
Argitaletxea: Destino
Orri kopurua: 540 orri

Adin ertaineko gizon bat biluzik eta era basatian erailda agertu da Formenterako hondartza bakarti batean. Guardia Zibilak uharteetan jasotako hainbat lekukotasunen arabera, aurreko egunetan gazte batzuekin batera ikusi zuen Eivissako gay giroko lokaletan. Buruzagiek Bevilacqua-ri ikerketaz arduratzeko deitzen diotenean eta hildakoaren berezitasunaren berri ematen diotenean —bere garaian eta kolaboratzeagatik zigortutako euskal herritar bat—, tenienteordeak ulertuko du ez dela beste kasu bat.

Eraiketa argitzeko, eta tokian bertan arakatu ondoren, Bevilacqua Gipuzkoara joan beharko du bere taldearekin, hildakoaren bizilekura, terrorismoaren aurkako borrokan ia hogeita hamar urte lehenago izan zuten inplikazioagatik ondo ezagutzen duen eremu batera. ■



No estamos para bailes rusos

Jose Miguel Gastón



Askatasun haizea

Joxerra Bustillo, Eugenio Etxebeste,
Iñaki Egaña



Bahiketa

Aseel Luzarraga



Agua salada

Jessica Andrews



Neskamearen ipuina

Margaret Atwood



No me avergoncé del Evangelio

Marino Ayerra





(errezeta)

Atun tartarra guakamolearekin

4 pertsonentzat:

- 400-500 gr atun gorria.
- Tipula samur bat.
- Sesamo 15 gr.
- 2 ahuakate.
- 2 pipermin pikante.
- Lima bat.
- Entsaladako tomate bat.
- Oliba-olioa.

Lehenik eta behin, atuna garbituko dugu eta 24 eta 28 ordu artean izoztuko dugu, anisakisak akabatzeke. Atuna desizoztuta daukagunean, 5 mm-ko dadotan moztuko dugu. Tomatea ere neurri bereko dadoetan moztuko dugu. Tipula samur erdia ere moztu egingo dugu, baina dado txikiagoetan. Hemen ere tipulin edo perrexil pixka bat gehitu dezakegu.

Dena edukiontzi baten barruan jarriko dugu, eta olio eta gatz pixka bat gehituko diogu.

Guakamolerako, ahuakatea, tipula samur erdia, 2 pipermin txiki, olio eta gatz jarriko ditugu. Lima zukutua ere jarriko dugu. Dena turmix edo irabiagailu batetik igaroko dugu, tartarrari laguntzeko, nahi dugun lodiera izan arte.

Tartarra plater batean muntatuko dugu, eta guakamolearekin eta ogi xigortu batzuekin lagunduko diogu. On egin! ■



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun zenbait erdarakada. Saia gaitezen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Etorriko direnean.	Etortzen direnean.
Jo dit makil batekin	Makil batez jo nau.
Beti esaten dezu berdina	Beti esaten duzu gauza bera

Euskararen aurkako erasoak

Euskarak eraso ugari jasan ditu historian. Hemen zenbait adibide:

"Los muchachos a quienes obligan maestros (hasta con castigos) a hablar castellano, apenas salen de la escuela, vuelven con el mayor placer y empeño a su idioma nativo. No se ha introducido en estos países el idioma romano o castellano ni con los castigos que dan a los niños en las escuelas para que no hablen en el idioma patrio."

Juan Antonio Moguel, 1800.urtea.

Euskarari buruzko Unamunoren zenbait esaldi:

- El euskera debe morir.
- El vascuence no es apto para la cultura moderna.
- El euskera sólo sirve para hablar de vacas.
- El vascuence no puede llegar a ser culto.

Euskaraz idatzitako XVI. mende hasierako maitasun poema bat aurkitu dute

Euskararen ikerkuntzak "altxor" berri bat dauka: euskaraz idatzitako XVI. mende hasierako maitasun poema bat. Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan aurkitu dute, Oñatin. Poema euskara arkaikoan idatzia dago, eta Azkoititik iritsitako notario-protokolo batean jasota zegoen olerkia.

"Garrantzi handiko aurkikuntza da, euskara arkaikoan idatzitako garai hartako oso testu gutxi daudelako eta, horrenbestez, zaharrenetakoa izan litekeelako", adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak ohar baten bidez.

Ander Ros irakaslearen esanetan, "gipuzkeraz idatzitako testu bakanetakoa da, eta horien artean zaharrena". Datari dagokionez, letra berarekin idatzitako beste zenbait dokumentutan oinarrituta ondorioztatu dute 1508 eta 1521 artean idatzi zutela.

Honela diote olerkiaren lehenengo bertsoek: Ene laztan gozo ederra/ penaz penañen naçu/ Orreyñ culez ninduçula/ Nola amora nençañun/ ori escuan ezipata. ■

Ongi etorri Itsasondora 2020an jaiotako haurrak

Julen Altuna Luna (2020/01/14)
Alaia Izquierdo Irastorza (2020/01/14)
Edesiri Eguonor Onakiti (2020/04/01)
Beñat Serrano Gaztañaga (2020/08/10)
Harritu Usabiaga Saenz de Navarrete (2020/08/20)
Irene Carrasco Aveiro (2020/09/20)
Aiala Haguel Langel (2020/10/10)



Kultur Agenda

OTSAILA

- 2, 9, 16 eta 23** Hirugarren adinekoen ariketa fisikoa (16:00)
Tipi-tapa (17:00)
3 Memoria tailerra (18:00)
6 Zuhaitz eguna (10:00) plazan
8 Lurralde batzordea (19:00)
10 Herri bizitza batzordea (19:00)
11 Ongizate batzordea (17:00)
25 Bingoa jubilatuean (17:00)

MARTXOA

- 2, 9, 16, 23 eta 30** Hirugarren adinekoen ariketa fisikoa (16:00)
Tipi-tapa (17:00)
6 Emakumeen Nazioarteko Eguneko bazkaria, Arbelaitzen
8-14 Emakumeen Nazioarteko Egunaren astea.
8 Lurralde batzordea (19:00)
10 Herri bizitza batzordea (19:00)
11 Ongizate batzordea (19:00)
26 Bingoa jubilatuean (17:00)

APIRILA

- 6, 13, 20 eta 27** Hirugarren adinekoen ariketa fisikoa (16:00)
Tipi-tapa (17:00)
7 Memoria tailerra (18:00)
19-25 Kirol astea
22 Odol emateak (18:30-20:30)
23 Liburuaren nazioarteko eguna
29 Bingoa jubilatuean (17:00)



COVID-19a dela eta, baliteke ekintza horietako batzuk ezin egitea.
Webgunean eta pantailetan emango da horren berri.

Telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	

Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkarte	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285

Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((47. zk)) Urria 2020

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhoa Barandiaran
Asier Arbilla
Asier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Ekhi Zubiria (AZTIKER)
Eneritz Albizu (UEMA)
Eskolako irakasleak
Haurreskolako hezitzaileak
Garikoitz Goikoetxea (UEMA)
Guraso Elkarte
Iñaki Aizpuru
Leire Garmendia
Leire Irastorza
Maite Lasa
Mikel Mendizabal
Nerea Manzísidor
Unai Aldasoro
Rosa Aurkia

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriitik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:
SS-297-2010 2171-5572



**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
APIRILEAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**